

Donostia, 2020ko otsailaren 21a

### UDALBATZAKO IDAZKARI NAGUSIARI

#### EKIALDEKO BARRUTIAREN AURREKONTUAREKIN EGIKARITU BEHARREKO PROIEKTUEI BURUZKO KONTROL MOZIOA

Elkarrekin Donostia udal talde politikoko Aitzole Araneta bozeramaileak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikuluekin bat etorrita, EKIALDEKO BARRUTIAREN AURREKONTUAREKIN EGIKARITU BEHARREKO PROIEKTUEI buruzko honako KONTROL MOZIO hau aurkezten du OSOKO BILKURAN eztabaidatua izan dadin.

#### JUSTIFIKAZIOA

2020. urterako aurrekontuetan, Ekialdeko Barrutiko proiektuak egikaritzeko 1.330.000 euroko partida gorde da. Zenbateko horri aurreko urteko 300.000 € gehitu behar zaizkio, ezein proiektutara bideratu gabe geratu baitziren.

2019. urtean, Barrutiaren barruan ez zenez egin Barrutirako gordetako aurrekontua zer proiektutara bideratuko zen hautatzeko herritarren parte-hartze prozesurik, aurrekontua inbertitzea eta hiri osorako egindako herritarren parte-hartze prozesutik ateratako proiektuak egikaritzea erabaki zen, Barrutia osatzen duten auzoetan egin beharreko proiektuak.

Otsailaren 5ean, Ekialdeko Barrutiaren lantaldean luze aztertu zuten aurtengo urterako adjudikatutako aurrekontua zer proiektutan inbertituko zen, eta Barrutiko aurrekontuarekin baldintza hauek betetzen dituzten proiektuak egikaritzea proposatu zen: (1) aurreko urtean egin gabe geratu zirenak, (2) Herritarren Partaidetza Saitetik bideratutako proiektuak, herritarrekin egiten ari diren bileren ondorioz proposatu direnak, (3) Barrutiko kideek proposatutako proiektuak, eta (4) puntu kritikoen maparen garapenetik sortutako proiektuak.

2020ko ekitaldirako aurrekontua planteatu den moduan, Barrutiko proiektuetarako adjudikatutako diru-kopuruak Barrutiko kideek proposatutako proiektuetarako izan beharko luke, eta ez Partaidetza Sailaren berezko proiektuei irtenbidea emateko, sailak bai baitu berez esleitutako aurrekontua.

Hori guztia dela eta, honako hau proposatzen da:

#### KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio Ekialdeko Barrutiari dagokion aurrekontu partida Ekialdeko Barrutiko Batzordetik ateratzen diren proiektuetarako soilik erabil dezala.
2. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio Ekialdeko Barrutiari dagokion aurrekontu partida ez dezala erabili Ekialdeko Barrutiko Batzordetik berez sortu ez diren esku-hartzeetarako, nahiz eta fisikoki Ekialdeko Barrutia osatzen duten auzoetan kokatuta egon.

Sin.: Aitzole Araneta

*Elkarrekin Donostia Udal Taldeko bozeramailea*